

AURKEZPENA

Altza BHI institutoko bigarren batxillergoko ikasleak gara. Ingurunea zaintzeko beharra sentitu dugu txikiak ginenetik. Horregatik, eskolan zein institutoan ohitura osasungarriak sustatzeko proiektuei ekin diegu aukera izan dugun guztietan. Egungo arazoak ikusita, ezinbestekoa iruditzen zaigu horrelako ekintzak bultzatzea. Nahiko zaila da horrelako jarduerak publikoari era atraktiboan aurkeztea, bestalde, gure baliabide intelektualez eta jendearen beharra ulertzeko errezetasunaz baliatuz, ohiko jatetxea ez den bat sortu dugu. Era berean, gure auzoan jatetxea jarri dugu hemengo langabezia ahalik eta gehien murrizteko.